



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Gobernanta Departamentua



Open
Government
Partnership



KT4 Saioa

Akta
2022.12.01

MARAKA

Aurkibidea

1. *Parte hartzaileak eta helburuak.*
2. *Saiora sarrera.*
3. *Tresnaren bertsio berria azaldu.*
4. *Gidaren azterketa.*
5. *Pilotoen oinarriak finkatzen.*
6. *Saioaren itxiera.*

1. Parte-hartzaileak eta helburuak.

Bilera: Konpromiso Taldearen laugarren saioa, KT4.

Data: 2022.12.01

Helburuak:

Laugarren saioaren helburu nagusiak hurrengoak izan dira:

- Azken Konpromiso Taldeko saiotik **orainarte egin den lana aurkeztu.**
- Arrakala digitalaren inguruko **tresnaren bertsio berria aurkeztu eta ekarpenak egin:**
 - Tresnarako planteatutako **printzipioak kontrastatu.**
 - **Prozesuaren eta erabilgarritasunaren inguruko hausnarketa** egin.
 - **Tresnen balioa eztabaidatu.**
- Tresna praktikan jarriko duen **proiektu pilotoen inguruan hausnartu:**
 - **Proiektu pilotoen ezaugarri, irizpide, baldintza eta helburuak erabaki.**
 - **Proiektu piloto posibleak proposatu.**

1. Parte-hartzaileak eta helburuak.

Parte-hartzaileak:



2. Saiora sarrera.

- **Ongi etorria eman** eta **saioan zer egingo den azaldu** ondoren, hasierako lotsak kendu eta parte-hartzea sustatzeko dinamika bat burutu da. Parte-hartzaile bakoitzak abenduko zubirako duten plana azaldu behar izan du.
- Dinamikak bere helburua betetzeko balio izan du.



3. Tresnaren bertsio berria azaldu.

Testuinguruaren azalpena:

- Azken Konpromiso Taldeko saiotik **emandako pausoak azaldu dira, partaideak testuinguruan jarriz.**

Tresnaren azalpena:

- **Tresnarako sortutako bertsio berria aurkeztu da:** tresnaren oinarrirako sortutako printzipioak, prozesua, tresnak eta erabilera azalduz.
- Aurkezpen arin bat izan da, testuingurua azaltzeko, **ondorengo dinamiketan tresna taldeka aztertzeko aukera izan baitute.**

4. **Gidaren azterketa.**

- OGP III. Konpromisotik sortu den **tresnaren bertsio berria kontrastatzeko eta honen gainean ekarpenak egiteko dinamika** bat burutu da.
- **Dinamika bi zatitan** banatuta egon da: lehenik eta behin azterketa indibidualki burutu da, ondoren, egindako hausnarketan taldeka banatu eta azterketa taldeka egiteko berriz.
- Aurretiaz diseinatutako txantiloï batzuk erabili dituzte hausnarketa egin eta eztabaida bat sortzeko. Hausnarketak bai indibidualki bai taldeetan, hurrengoak izan dira:
 - **Nola ikusten ditut printzipioak?**
 - **Nola ikusten dut prozesua? Erabilgarria da? Zergatik?**
 - **Nola ikusten ditut tresnak? Erabilgarriak dira? Zergatik?**
 - **Faltan bota dut... | Sakondu beharko litzateke...**
 - **Garrantzia gehiegi eman zaio...**
- Apuntatutako informazioarekin lagunduz **ideiak amankomunean jarri dira**, hurrengo orrialdean gehitzen dira aipatutako gaiak.



4. Gidaren azterketa.

Eztabaidan landutako gaiak:

• Idea orokorrak:

- **Orokorrean, gidaren proposamena aproposa dela hausnartu da, nahiz eta aldaketa batzuk iradoki diren.**
- Nahiz eta oinarria erabiltzaile eta herritarren ikuspegia izan, **faltan bota da administrazioen langileen ikuspuntuaren** integrazioa. Tresnetan integratuta dauden arren gidan zehar erabiltzaile hitza erabiltzean ez da ulertzen administrazio barruko eragileak ere badaudela. Ekimen hitzarekin egin den bezala, pertsona hitzarekin hasieran azapena jartzea proposatzen da.

• Egituraren inguruko hausnarketa:

- **Arrakala moten azalpena testuinguruan** integratuta egon behar dira, “tresnaren testuingurua ulertzeko beharrezkoak” baitira.

- **Arrakala moten inguruko informazio gehiago** eman beharko litzateke.
 - “Garrantzi handiagoa eman behar zaie”.
 - Gidaren arintasuna ez galtzeko garrantzitsua da arrakala mota bakoitzaren inguruko azalpen esaldi bat integratzea eta **azalpen zehatza eranskinetan** batzea.
- Prozesuaren **fase bakoitzean erabiltzen den egitura azaldu** (zertan datza, kontuan hartu, eresna erabilgarriak eta ondoren tresnak), hobeto ulertzeko.
 - “Tresna erabilgarriak” atala oso baliotsua dela hausnartu dute eta saioen dinamizazioan laguntzeko dela azaltzea garrantzitsua dela ondorioztatu dute.

4. **Gidaren azterketa.**

Eztabaidan landutako gaiak:

• Printzipioen inguruko hausnarketa:

- **Orokorrean printzipioak aproposak eta garrantzi handikoak direla erabaki da.**
- **Prozesuan zehar kontuan hartu direla ikustea beharrezkoa dela hausnartu da.**
- **Hizkuntza irisgarriago bat erabili** behar da, “ikuspegi sistemikoa” bezalako kontzeptuak ekidinez.
- **Erakundeen arteko elkarlana beharrezkoa dela azpimarratu** behar da.

• Prozesuaren inguruko hausnarketa:

- Prozesuaren **fase bakoitza ulerterraza eta erabilgarria dela ondorioztatu** da.
- **Fase bakoitzaren arteko loturak hobetu** beharra dago.

- **Pozesuko fase guztiak betetzea beharrezkoa dela argi utzi** behar da.
- **Erakundeen arteko laguntza posibleen identifikazioa** prozesuan zehar integratu behar dela hausnartu da.
- **Ekimen finala garatuko duten pertsonak** (adibidez, programatzaileak) **prozesu osoan zehar parte hartu** beharko lukete, irisgarritasunaren garrantzia ondo ulertu dezaten.
- **“Tresna erabilgarriak” atalari izena aldatu,** ondorengo tresnekin nahastu daitekeelako.
- **Adierazleak** hasierako faseetan azaldu beharko lirateke eta amaieran ebaluaketarako erabili.
- Amaieran beste fase edo atal bat txertatzea proposatzen da: **herritar edo parte-hartzaileei itzulpena.**

4. Gidaren azterketa.

Eztabaidan landutako gaiak:

• Tresnen inguruko hausnarketa:

- **Tresnak erabiltzaileetan oinarrituta** egoteak ematen die balio handiena.
- **Tresna batzuk ez dira ondo ulertzen.**
- **“1. Erronka eta testuingurua definitu”** fasean:
 - **Eragile maparen inguruko informazio gehiago** eman: “Norarte heldu behar naiz eragileak identifikatzerakoan?”
 - Helburu maparen 7.3. galderan, martxan ez dauden ekimenentzako “Zein oztopo topatu ditzakegu?” galdera txertatu.
- **“4. Definitu eta garatu”** fasean tresnaren bidez diseinatuko den **ekimena intuitiboa izan behar dela azpimarratu.**

- **“5. Prototipatu eta testatu”** faseko autodiagnostikoaren inguruan:

- **Galdera batzuk oso kategorikoak dira, zehatzagoak izan beharko lirakete** gezurrezko erantzunik ez izateko.
- **Printzipioekin loturak sortu.**
- **Galdera batzuei indar handiagoa eman:** adibidez puntuazio handiagoa emanez edo batzuen ezetzarekin, diagnostiko osoaren balioa bajeanean jarritz.

5. Pilotoen oinarriak finkatzen.

- Konpromiso taldeko kideek **gida testatzeko aurrera eramango diren pilotoak nolakoak izan behar diren hausnartu** dute.
- Hausnarketaz aparte, **proiektu piloto posibleak proposatzera** izan dira gonbidatuak.
- Aurretiaz diseinatutako txantiloak batzuk erabili dituzte zeinbat hausnarketa egin eta eztabaidatzeko.
- Hausnarketak hurrengoak izan dira:
 - **Nolako proiektu pilotoak imajinatzen ditugu?**
 - **Zertarako egingo ditugu pilotoak? Zein da helburua?**
 - **Zeintzuk izan behar dira piloto horien ezaugarriak?**
 - **Zeintzuk izan behar dira pilotoen irizpide/baldintzak?**
 - **Adibideak, buruan ditugun aukerak pilotoak egiteko...**
- Apuntatutako informazioarekin lagunduz **ideiak amankomunean jarri dira, eztabaida sortuz**, hurrengo orrialdean gehitzen dira aipatutako gaiak.



5. Pilotoen oinarriak finkatzen.

Eztabaidan landutako gaiak:

• Pilotoen ezaugarriak:

- **Proiektu txikiak izan behar dira, prototipatu eta testatzeko errazak.**
- **Oso praktikoak** izan behar dira.
- **Denboran mugatuak**, hau da, ezin dira proiektu oso luzeak izan.
- **Emaitza neurgarriak** izan behar dituzte.
- Bi piloto forma eraman beharko ziren aurrera: **martxan dagoen ekimena eta oraindik martxan ez dagoena.**
- **Administrazio, entitate sozial edo enpresek aurrera eramaten dituzten ekimenak izan daitezke.**
- **Pilotajearen ardura hartzen dutenek prozesuaren hasieratik parte-hartzea.**

• Pilotoen helburuak:

- **Gida testeatu eta hobekuntzak identifikatu.**
- **Metodologiaren erabilgarritasun eta ulergarritasuna testeatu.**
- **Erabiltzaileen zalantzak jaso.**
- **Ekarpenak egiteko aukera.**
- **Faktore berriak mahaigainean jarri.**
- **Egiteko modu berriak txertatu.**
- **Lan egiteko formetan aldaketak sortu.**
- **Arazo eta eskaerei aurre egin.**
- **Konpromiso bat sortu.**

5. Pilotoen oinarriak finkatzen.

Eztabaidan landutako gaiak:

• Piloto posibleak:

- **Gipuzkoako Foru Aldundiaren modernizazioko IZFE proiektua.**
- **Bilboko Udalak arrakala digitalak lantzen ditu.**
- **OGP 5. konpromisoa.**
- **Gasteizeko Udaletik: “Vitoria-Gasteiz hobetuz” eta Open Government Euskadirekin egindako aplikazioa.**

6. Saioaren itxiera.

Saioaren itxiera, hurrengo pausoak eta balorazioa

- **Itxieran hurrengo pausoen errepassoa egin da.**
- **Saioaren baloraziorako dinamika** bat burutu da, banaka bete beharrezko fitxa bat osatuz.
 - Saioaren balorazio positiboa izan da, 1etik 6ra baloratuz batazbesteko 5 puntuko balorazioa izan du.
 - Parte-hartze handiagoa bota da faltan.

Hurrengo pausoak:

Nahiz eta oraindik data zehatzik ez izan, **gogoratu datorren urtean kontaktuan jarriko garela berriz Konpromiso Taldeko kideekin hurrengo pausoein aurrera egiteko.**



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Gobernantza Departamentua



Open
Government
Partnership



OGP
LOCAL
Euskadi



innobasque
Berrikuntzaren Euskal Agentzia
Agencia Vasca de la Innovación

Eskerrik asko!

3. Konpromisoaren idazkaritza teknikoa:

MARAKA

www.maraka.co
garazi@maraka.co